




Jardueren Memoria 2015 Musikhazi

GIPUZKOAKO MUSIKOTERAPIA ELKARTEA

“Musikak, isilpean gelditu ezin den eta hitzekin adierazi ezin den hura esatea ahalbidetzen du.” (Victor Hugo)



AURKEZPENA

Musikhazi Gipuzkoako Musikoterapia elkarteak, 2013ko Apirilaren 23an sortu zen Musikanaiz S.L. musika formakuntza zentroko lau musikoterapeuta eta bi musika irakasleren eskutik. Musikoterapia, pertsona, elkarte eta instituzio pribatu edota publikoetan sustatzea helburu duen irabazi asmorik gabeko elkarte gara. Musika, pertsonaren garapenaren parte izatea ahalbidetzen duten espazioak sustatzen ditugu.

Munduko Musikoterapia Federazioak (1996) modu honetan definitzen du musikoterapia: “musikoterapeuta baten eskutik, paziente edota talde batekin musika eta bere elementuak erabiltzean datza; komunikazioa, ikaskuntza, mugikortasuna, espresioa, antolamendua eta beste edozein helburu terapeutikoak lantzen dira, behar fisiko, psikiko eta sozialak betetz”.

Bere sorreratik, Musikhazi Elkartetik praktika terapeutiko hau ezagutarazteko eta zabaltzeko lanean dihardugu, ahalik eta pertsona eta kolektibo gehienek musikoterapiak dakartzan onurak ezagutu ditzaten.

Poliki poliki, eguneroko lan iraunkor eta elkarte eta instituzio ezberdinen babesari esker, elkarteak indartzen eta bere jarduerak esparru ezberdinetara zabaltzen ari da. Egun, pertsona eta kolektibo ezberdinekin lan egiten dugu. Besteak beste, Autismoaren Espektroko Nahasmena (TEA) duten hurrekin, adineko pertsonekin arazo kognitiboak zein fisikoak izan edo ez, jarrera arazoak dituzten nerabeekin, bazterketa soziala pairatzeko arriskua duten pertsonekin eta dibertsitate funtzionala duten pertsonekin (Down Sindromea, San Fillipo sindromea, diskapazitate intelektuala, garun paralisia...)

Era berean, Elkartetik, haurrentzako hasialdiko jarduerak lantzen ditugu. Tailer hauen funtsa, musikaren bitartez, haurraren garapena sustatzea delarik. Horien artean; Haurrentzako Estimulazio Musikal Goiztiarra, musika eta mugimenduko tailerrak eta udalekuak. Jarduera hauetatik lortzen den etekin ekonomikoak, musikoterapia finantziatzen laguntzen digu.

ELKARTEAREN ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEAK

ZUZENDARITZA BATZORDEA

LEHENDAKARIA: Yamel Romero Soto

LEHENDAKARI ORDEA: Sonia López Quintana

IDAZKARIA: Tomás Fernandez González

DIRUZAINA: Sara Varas López

GIZA BALIABIDEAK

Hastapenetik, Elkarteak garaturiko jarduera, zuzendaritza batzordeko kideek eginiko lan boluntarioan oinarritu izan da. Baina, 2015ean egoera hau aldatu da. Proiektu ezberdinek eta lan eskergak bi langile kontratatzea ahalbidetu du.

Pertsona hauek, elkartearen administrazioaz, proiektu ezberdinen gestioaz eta Elkarteko jardueraren gehiengoaz burutzeaz arduratzen dira.

Era berean, Musikanaz musika formakuntza zentroak, elkartearen jarduera burutzeko behar diren material, espazio eta profesional ezberdinak lortzen laguntzen gaitu.

BALANTZE EKONOMIKOA

SARRERAK

AZALPENA	KOPURUA
Elkarte eta fundazioetan Musikoterapia esku hartzeak	7.986,24€
Erresidentzia eta eguneko zentroetan garaturiko musikoterapia programak	11.312,00€
Beste Musikoterapia esku hartzeak (bakarkakoak eta taldekakoak)	1.740,00€
Estimulazio Musikal Goiztiar tailerrak	1.630,00€
Eskolaz kanpoko ekintzak: musika eta mugimendua	575,00 €
Haurrentzako Udalekuak (Aste Santuak,Udara eta Gabonak)	10.962,51€
Formakuntza mintegiak	140,00€
Beste enpresetan eginiko lanak	878,00€
Diru laguntzak: Donostia Kultura	450,10€
GUZTIRA	35.673,85€

GASTUAK

AZALPENA	KOPURUA
Langile gastuak: soldatak,gizarte segurantzaz, desplazamenduak...	17.985,19€
Kanpo profesionalak:zerbitzu profesionalak aholkularitza...	11-508,90€
Instalazioak: alokairua, horniketa gastuak	3.794,76€
Materiala: bulegokoa,tailerrentzat...	368,29€
Gastu finantzieroak	86,20€
TOTAL	33.743,34€

PROIEKTU ETA EKINTZAK

Sorreratik, bere jardueraren zati handi bat musikoterapiaren erabilera eremu ezberdinetan sustatzera bideratu du Elkarteak. Egun, oraindik ere, musikoterapia ezezaguna den praktika bat da, beraz, beharrezkoa da terapia hau nola garatzen den eta pertsonengan eta gizartearengan izan ditzakeen onurak ezagutzera ematea.

Komunikazioa ezinbesteko tresna bilakatzen da lan honetan. Gure web orria hobetzeko lanean ari gara eta sare sozialetan (facebook, Twitter...) ahalik eta presentzia handiena izaten saiatzen gara. Era berean, hainbat hitzaldi eta mintegi antolatu ditugu musikoterapia zer den eta nola lantzen den jakiteko interesa duten pertsonentzat.

Halaber, badira musikoterapia babesten eta bultzatzen duten elkarte eta kolektiboak. Zentzu honetan, Musikhazitik hainbat elkarte, fundazio, instituzio, harrera etxe, eguneko zentro eta erresidentziarekin elkarlana garatzen dugu.

- Elkarte eta fundazioak: Mindara (Dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko Elkarte), Uliazpi Fundazioa, Stop Sanfilippo Fundazioa, Gautena eta Gurutze Gorria.
- Harrera etxeak: Urgatzi eta Fundación Eudes.
- Residentziak eta Eguneko Zentruak: Gerontológico de Rentería (Amarane, Donostia), Matia Fundazioa (Donostia), Orioko eguneko zentrua, Getariako eguneko zentrua eta Caser Residencial Betharram.

Bestetik, Donostiako Udala eta Donostia Kulturatik jasotako diru laguntzei esker, hainbat proiektu, tailer eta jarduera garatzeko aukera izan dugu.

GARATURIKO PROIEKTUAK

2015 urtean zehar, honako proiektuak landu ditugu:

- ✓ Dibertsitate funtzionala duten haurrekin, Mindara Elkartean (Erretereria) Musikoterapia esku hartzea.

- ✓ Gurutzeko Gorriko Algara Eguneko Zentroan, atzerritarrekin musikoterapia esku hartzea.
- ✓ Uliazpi Fundazioan “Musikando” Musicoterapia sortzailea.
- ✓ Musikoterapia programa Residencial Caser Betharram-en, Hondarribiko adineko pertsonentzako zentroan. Programa hau urtariletik uztaila bitarte garatu zen.
- ✓ Sanfilippo Sindromea duen haur batekin musikoterapia esku hartzea. Programa honi azaroan eman genion hasiera.
- ✓ Harrera etxeetako hurrekin musikoterapia esku hartzeak. Eudes Fundazioa eta Urgatzirekin (Igeldo) elkar lanean garatzen diren programak dira.
- ✓ Gautena elkarteko Autismoaren Espeketroko Nahasmena duten haurrentzako musikoterapia. Musikhaziren instalazioetan burutzen diren bakarkako zein taldekako musikoterapia programak dira.
- ✓ Orio eta Getariako Eguneko Zentroetan garaturiko Musikoterapia programak. Martxotik ekaina bitartean buruturiko taldekako musikoterapia saioak.
- ✓ Amaraene eta Elizaran Eguneko Zentrotan garaturiko Musikoterapia programak. Hauek, Donostiako Udalak diruz lagunduriko programak dira.



- ✓ “Integrarte”, baztertze soziala pairatzeko arriskuan dauden gazte atzerritarrei zuzenduriko musika, gorputz espresioa, idazketa edota ikus-entzunezko sorkuntzaren bitartez garaturiko tailer terapeutikoak. Programa honen helburua gazte hauek gizartean integratzen laguntzea da.

 - ✓ “Soinu Magikoak” 2-3 urte arteko hurrei zuzenduriko haur estimulazio musikal goiztiarreko tailerrak. Aieteko Kultur Etxean eta Donostiako Musika eta Dantza Eskolan garatzen den proiektu hau, Donostia Kulturak subentzionatua da.
- 
- ✓ “Musika Familiartean” 0-3 eta 3-7 urte-arteko hurrei eta beraien senideei zuzenduriko haurrentzako estimulazio musikal goiztiarreko tailerrak. Jarduera hau leku ezberdinetan burutu da: Aita Larramendi Ikastola (Andoain), Antoniano Ikastetxea (Zarautz), Hirukide Ikastetxea (Tolosa), Txantxiki Famili Elkartea (Oñati), Loreka haurtzaindegia eta Musikhaziko instalazioetan.

 - ✓ Beasaingo La Salle Ikastetxean, 4-7 urte-arteko haurrentzako Musika eta Mugimendua eskolaz kanpoko ekintzak. 2015eko irailetik aurrera.

Arestian zerrendaturiko proiektuez gain, aurrera begirako programa berriak prestatzen ari gara; enpresa munduari zuzenduriko musikoterapia eta jaiotze aurretiko musikoterapia (haurdunaldian dauden emakumeei zuzendua).

GENERO BERDINTASUNAREN IRIZPIDEAK

Musikhazi Elkarteak, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen du, bai barne funtzionamenduan baita garatzen ditugun jardueretan ere. Gure printzipioak, parekidetasuna eta berdintasuna dira.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Gure jarduera eremua Gipuzkoa osora hedatzen da eta beraz kontziente gara bertako errealitate sozio linguistikoa zein den. Horregatik, Elkartetik, euskararen normalkuntzaren aldeko apustua egiten dugu.

Oraindik ere lan handia egiteko dugula jakitun izanik, 2015 urtean aurrera pausu batzuk eman ditugu alor honetan; garatzen ditugun programa eta jarduera guztiak euskaraz eta gazteleraz eskaintzen ditugu eta komunikazio lana, barne eta kanpora begirakoa ere bi hizkuntzetan bermatzen dugu.

Alabaina, oraindik zer hobetu badugunez, 2016ari begira urrats berriak aurreikusten ditugu:

- Web orria berritzea informazio guztia euskaraz ere egon dadin bermatuz.
- Formakuntza: euskara ez dakiten edota ongi menderatzen ez duten kolaboratzaileentzat euskara ikastaroak.

ESKERTZAK

Musikhazik, eskerrak eman nahi dizkiegu elkarteren proiektuak babestu eta sustatzen dituzten pertsona, elkarte eta instituzio guztiei. Beraiei esker bidea eginez goaz, ate eta leiho berriak zabalduz.